

**ARRISKU-ADIERAZLEA****1/6**

Zenbaki hau produktuaren arriskuaren adierazgarria da, 1/6 arrisku txikienaren adierazgarria izanik eta 6/6 handienarena.

ECC/2316/2015, azaroaren 4ko Aginduak, finantza produktuen informazio betebeharrak eta klasifikazioari buruzkoak diotenaren arabera eginiko produktu klasifikazioa.

Argibideak ematea da agiri honetako informazioaren helburu bakarra.

Letra lodiz eta etzanez nabarmendutako informazioak garrantzi handikoak dira.

KREDITU-ERAKUNDEA

Izen komertziala: CAJA LABORAL POPULAR COOP. de CRÉDITO / LABORAL Kutxa

Egoitza soziala: Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua, zk.g., 20500, Arrasate, Gipuzkoa

Telefono-zenbakia: 901 333 444

Helbide elektronikoa: kontaktatu@laboralkutxa.com

KONTUAREN AZALPENA

Erabateko erabilgarritasuna duen kontu korrontea, eurotan, 2017ko azaroaren 24ko 19/2017 Errege Lege Dekretuak, oinarrizko ordainketa-kontuenak, ordainketa-kontuen lekualdatzearenak eta komisioen konparagarritasunarenak, arautua.

Hauek dira kontua izateko baldintzak: pertsona fisikoa izatea; Europar Batasunean legez bizitzea edo asilo-eskatzaila izatea edo, bizileku-baimenik izan gabe ere, arrazoi juridikoak edo egitezkoak direla eta kanporaezina izatea; beste ordainketa-konturik ez izatea, eta jarduera komertzialarekin, enpresarekin edo lanbidearekin loturarik ez duen helburuarekin jardutea. Ondore horietarako, titularrak erantzukizunpeko adierazpena egin beharko du, Espainian inolako ordainketa-konturik ez duela berresteko.

Kontua kontratatzeke ez da beste produkturik edo zerbitzurik kontratatu behar.

SARRERAK EGITEKO MODUA

- Eskudiruzko sarrerak LABORAL Kutxaren bulegoetan eta kutxazain automatikoetan
- Nomina, pentsioa, langabezia-laguntza eta abar helbideratzea
- Transferentziak
- Txekeak sartzeari

**SALDOA ERABILTZEA**

- Eskudirua ateratzea:
 - o LABORAL Kutxaren bulegoetan eta kutxazain automatikoetan
 - o Europar Batasuneko kutxazainetan, kontuari lotutako txartelaren bidez

- Ordaintzeko eragiketak:
 - o Helbideratutako zordunketak
 - o Transferentziak, baita agindu iraunkorrak ere, LABORAL Kutxaren bulegoetan eta kutxazain automatikoetan edo Online Bankaren bidez
 - o Kontuari lotutako txartelaren bidez egindako ordainketa-aginduak

Kontu honek ez du zorpekorik onartzen.

LOTUTAKO ZERBITZUA: ZORDUNKETA-TXARTELA

Kontuaren titularrak kontuari lotutako zordunketa-txartela eskatu ahal izango du, eskudirua ateratzeko eta ordainketa-eragiketak egiteko.

Zerbitzuari buruzko kontratu aurreko informazioan eta kontratu-informazioan zehazten dira zerbitzuaren erabilera-baldintzak, kontserbazioa eta kostua.

KONTRATUAREN IRAUPENA

Oinarrizko ordainketa-kontuak iraupen mugagabea du.

KOMISIOAK ETA GASTUAK

Mantentze-komisioa: 9 € hiru hilean behin*

Titularrak 120 ordainketa-eragiketaraino egin ahal izango ditu, urtean eta eurotan, bere ordainketa-kontutik, Europar Batasunaren barruan, inolako errekar gurik gabe, LABORAL Kutxaren bulegoetan edo Online Bankaren bidez. Helbideratutako zordunketen ordainketak eta transferentziak izan daitezke eragiketa horiek, baita transferentzia-agindu iraunkorrak betetzeko ordainketak ere.

*Oinarrizko ordainketa-kontuaren titular guztiek onartua badute zaurgarritasun-egoera edo finantza-bazterketa jasateko arriskua, komisioa 0 €-koa izango da. Egoera hori onartzeko, nahitaez bete behar da 2019ko martxoaren 22ko 164/2019 Errege Dekretuak ezarritako baldintzak. Zaurgarritasun-egoeran edo finantza-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonen aldeko oinarrizko ordainketa-kontuen doako erregimena ezartzen da Errege Dekretu horretan.

**Egoera ahulean edo finantza-bazterketan erortzeko arriskuan dauden pertsonen doako erregimena aplikatzeko baldintzak:**

Bezero bat egoera bereziki ahulean edo finantza-bazterketan erortzeko arriskuan dagoela ulertuko da bi baldintza hauek betetzen direnean:

- a) Familia-unitatearen urteko diru-sarrera gordinek muga hauek ez gainditzea:
- Eskaera egiten den unean indarrean dagoen 12 ordainketako ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa halako 3, familia-unitate batean sartuta ez dauden pertsonak badira.
 - Adierazle hori halako 3,5, 4 kideetik beherako familia-unitateen modalitateetako batean sartutako pertsonak badira.
 - Adierazle hori halako 4, 4 kideko edo gehiagoko familia-unitate batean edo, indarrean dagoen araudiaren arabera, familia ugariaren izaera onartua duen familia-unitate batean sartutako pertsonak badira.
 - Adierazle hori halako 4, ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila duen pertsona bat duten familia-unitateak badira. Desgaitasun horrek ofizialki onartua izan behar du, Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak edo autonomia-erkidegoetako dagokion organoak emandako ebazpenaren bidez.
- b) Familia-unitatea osatzen duten kideetatik batek ere ez izatea ohiko etxebizitza ez den ondasun higiezin baten gaineko titulartasun zuzen edo zeharkakorik edo eskubide errealik, ezta merkataritza-sozietateen gaineko titulartasun errealik ere.
- c) Sexu-esplotazioaren edo trafikoaren biktima izatea, kasu horretan, a) eta b) puntuetako baldintzak betetzetik salbuetsita egongo da.

Likidazio-aldia: hiru hilean behingoa.

Likidazio-egunak: 02-28a, 05-31, 08-31 eta 11-30a.

- Informazioa bidaltzearen komisioa:
 - Postamail zerbitzuaren bidez: doan
 - Hilero ohiko postaren bidez: doan

ORDAINKETA

ITN: % 0 (**UTB: % 0**)



Informazio gisa esan behar da, urteko tasa baliokidea (UTBa) Espainiako Bankuaren 5/2012 Zirkularrean —2012ko uztailaren 6ko BOE— adierazten denaren arabera kalkulatu dela.

KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

Caja Laboral Popular COOP. de CRÉDITOK bere kabuz suntsiarazi ahal izango du oinarrizko ordainketa-kontuaren esparru-kontratua, baldintza hauetakoren bat betetzen bada:

- a) Titularrak kontua legez kanpoko helburuetarako erabiltzea.
- b) Kontuan eragiketarik ez egitea ondoz ondoko 24 hilabetetan edo gehiagotan.
- c) Titularrak, oinarrizko ordainketa-kontua lortzeko, zuzena ez den informazioa ematea, baldin eta informazio zuzena eman izan balu ez bazukeen kontu hori eskuratzeko eskubiderik izango.
- d) Titularra Europar Batasunean legez ez bizitzea, baina, arrazoi juridikoak edo egitezkoak direla eta, kanporaezina izatea.
- e) Titularrak geroago kontu bat zabaltzea Espainian halako eragiketak egiteko.
- f) Titularrak negozio-harremanetan zehar eskatutako dokumentazioa edo informazioa ez ematea, eta, horren ondorioz, ezinezkoa izatea arreta egokiko neurriak edo 2010eko apirilaren 28ko Legeak aurreikusitako bestelako betebeharrak aplikatzea.

Kontratua suntsiarazteko arrazoia aurreko b), d) edo e) letretan aipatutakoren bat bada, LABORAL Kutxak titularretako edozein ohartaraziko du, kontratua suntsiarazteko eguna baino 2 hilabete lehenago.

Kontratua suntsiarazteko arrazoia a), c) edo f) letretan aipatutakoren bat bada, berriz, suntsiarazpena berehala gauzatuko da.

Titularrak kontua ixteko eskatu ahal izango du, aurrez ohartarazi gabe; halere, LABORAL Kutxak eskubidea izango du kontuaren likidazioa eta saldoaren itzulketa geroratzeko, kontuari lotutako ordainbideen bidez indarrean dauden eragiketak zorduntzeko behar den denboran. Titularrak itzuli egin beharko du kontuari lotutako zordunketa-txartela.

BALDINTZAK ALDATZEA

LABORAL Kutxak eskubidea izango du komisio berriak ezartzeko edo agiri honetan jasotako interes-tasak aldatzeko. Aldaketak, bezeroarentzat onuragarriagoak ez badira, indarrean jarri baino 2 hilabete lehenago ezagutaraziko zaizkio, ohiko postaren bidez, TITULARretako edozeinek LABORAL Kutxari adierazi dion helbide elektronikora bidalitako mezua bidez edo edozein baliabide elektronikoko edo telematikoren bidez, hala nola telefono mugikorrera bidalitako SMS bidez edota jakinarazpena egiten den unean legez indarrean dagoen beste prozedura baten bidez.

Bezeroak uko egiten dio, berariaz, adierazitakoa ez den beste abisu-epe bati.



Titularrak aldaketa horiek onartzen dituela ulertuko da, aldaketak indarrean jartzeko proposatutako egunaren aurretik bere desadostasuna adierazten ez badu.

Titularrak aldaketa horiek ez dituela onartzen adierazten badu aldaketok indarrean jartzeko proposatutako egunaren aurretik, kontratua inolako kosturik gabe suntsiarazi ahal izango du, eta aldaketa indarrean jartzeko aurreikusitako egunaren aurreko edozein unetatik aurrera izango du eragina.

GORDAILUEN BERME-FUNTSA

CAJA LABORAL POPULAR COOP. de CRÉDITO 2011ko urriaren 14ko 16/2011 Errege Lege Dekretuaren bidez sortutako Gordailuen Berme Funtsari dago atxikita, eta gordailugile bakoitzari 100.000 euroko zenbatekoa bermatuko dio, gehienez, dirutan egindako gordailuetarako.

BANKU-KONTUAK INTSULDATZEKO PRINTZPIO ERKIDEAK

CAJA LABORAL POPULAR COOP. de CRÉDITO «Banku-kontuak lekualdatzeko printzipio erkideetara» atxikita dago. Europako Banku Industriaren Batzordeak (EBICek) Europar Batasun osoan aplikatzeko sortutako printzipioak dira horiek.